

Jarduereen Oroitzidazkia 2010

SABINO ARANA FUNDAZIOA, 2011ko urtarrila

AURKIBIDEA

- 1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA
- 2.- ARGITALPENAK
- 3.- HERMES PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

Mintegiak
Hitzaldiak
AL 50 Programa Berezia

- 5.- GAZTERIA
- 6.- EUSKARA
- 7.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA
- 8.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
- 9.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA
- 10.- DURANGOKO AZOKA
- 11.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA
- 12.- HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA
- 13.- LORTUTAKO EMAITZEN BALIOESPENA

1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA

*** ALBERTO ONAINDIAREN POSTATRUKA 1936 ETA 1945 BITARTEAN**

Vatikanoko Artxiboetan (Erroma) egindako ikerlan bat da, Agirre lehendakariaren laguntzaile izan zen Alberto Onaindia apaizaren 1936 eta 1945 bitarteko postatrukea eta berak Gerra Zibilean zein II. Mundu Gerran egin zituen gestioak berreskuratzeko.

Salamancako “Gerra Zibilaren Artxiboa”n, 2010ean 75 gutun bildu ziren, hain zuzen ere Alberto Onaindiak eta Eusko Jaurlaritzaren Bartzelonako Ordezkaritzako Lehendakariitzako idazkari nagusi Julio Jauregik elkarri idatzitakoak, gero, laster argitaratuko den gutun-bilduman sartzeko.

*** “GUK EUSKADI ASKATU NAHI GENUEN. EUSKALDUNAK II. MUNDU GERRAN”, egilea: Elena de la Souchere**

Lan hau eten egin da, historialari eta ikertzailea hil egin delako.

*** NISE PROGRAMAREN 1. NAZIOARTEKO BATZARRA.**

Maiatzaren azken aldera Sabino Arana Fundazioak ADVN flandriar institutuak sustatutako NISE Egitasmoak (Bitarteko Egiturak eta Mugimendu Nazionalak Europan XIX. eta XX. mendeetan) antolatutako Nazioarteko Batzarrean parte hartu zuen.

Elkarraldiaren helburua mugimendu nazionalari buruzko konparaziozko azterlan bat egiteko tresna bat (datu-basea) sortzea izan zen.

Sabino Arana Fundazioaren ordezkariek, Eduardo Jauregik (Abertzaletasunaren Agiritegi Historikoaren koordinatzailea) Sabino Arana Fundazioaren aurkezpena egin zuen, eta gure 20 urtetik gorako ibilbidean egin eta egiten ari garen jardueren gainean hitz egin zuen, ekin berezia eginez Agiritegia eta bertan artatzen ditugun agiri-funtsen historia azaltzen.

*** “BRITAINIA HANDIRA EBAKUATUTAKO EUSKAL UMEAK 1937-1940”, egilea: Gregorio Arrien**

Gregorio Arrien historialariak amaitu du ikerlan hau, zein 2011 honetan argitaratuko baita

2.- ARGITALPENAK

*** Luis Arana Goiri (1862-1951). Historia del Nacionalismo Vasco**

Joan den irailaren 23an EAJ-PNVren EBBko lehendakari Iñigo Urkulluk Jean-Claude Larronde historialari, Baionako Elkargoko abokatu emeritu eta abertzaletasun kontuetan adituaren “*Luis Arana Goiri (1862-1951). Historia del Nacionalismo Vasco*” liburua aurkeztu zuen. Aurkezpenean, Urkullu eta Larronde jaunez gain, Sabino Arana Fundazioko lehendakari Juan M^a Atutxak eta Luis Aranaren iloba Iñaki Aranak ere hitz egin zuten.



Liburuak biografia bat irudi lezake lehenengo begiratu batean, baina askoz gehiago ere bada. Bertan xeheki azaltzen da euskal abertzaletasunaren historia, hastapenetik eta Gerra Zibilera arte, eta Luis Aranak berak sortzen hainbeste lagundu zuen mugimendu politiko horren gorabehera guztiak ere kontatzen dira. Beharbada, Juan M^a Atutxa Sabino Arana Fundazioko lehendakariak hitzaurrean esan bezala, liburu hau “*euskal abertzaletasunaren*

hasiera-garaiei buruz orain artean inoiz idatzi den saiakera historikorik onena da, hala zorroztasunagatik eta iturri ezezagun ugariren tratamendu zabalagatik, nola interpretazioagatik. Oso nabarmengarria da, Larronderen lanak, hasiera batean biografia bat izango zelarik, euskal abertzaletasunaren lehendabiziko urteetako gertaera nagusiez eta haien protagonistez orain artean egindako deskribapenik xehatuena, zehaztuena eta zehatzena eskaintzea”.

*** Hamaika oroimen askatasunarentzat: “Felipe Egigurenen oroitzapenak” (Ondarroa)**



Sabino Arana Fundazioak 2010eko uztailaren 9an, “Felipe Egiguren. Benetako abertzalea. Un abertzale íntegro” liburu aurkeztu zuen Sabin Etxean. Liburu hau “Hamaika oroimen askatasunarentzat” bildumako hirugarren argitalpena da; bildumaren helburua zera da: Euskadik bizirik irauteko eta beraren askatasunaren alde dena emanda, gaur egun euskal gizartearentzat ezezagunak diren euskaldun haietako askoren bizipenak eta esperientziak ahanzturatik berreskuratzea.

Abertzale haietako bat da liburu honen protagonista: Felipe Egiguren, Gerra Zibila eta diktadura frankista jasan behar izan zituen euskal herritar belaunaldi haren adibideetako bat.

Argitalpenak haren oroitzapenak jasotzen ditu, gerrako eta gerraosteko urteetakoak batez ere.

Arratsaldean, aurkezpena Ondarroako, Felipe Egigurenen jaioterriko, Kofradi Zaharrean egin zen.

*** DEIArako artikuluak. Euskal historia eta antropologiako askotariko gai zenbaiti buruz Deia egunkarirako kolaborazio gisa idatzitako artikuluak**

2010ean zehar Sabino Aranak “Euskaldunen historiak” saileko kolaborazioak koordinatu ditu DEIArentzat. Artikulu horietan, aldez edo moldez Euskadiren historia moldatu eta zizelkatu duten zenbait gai historiko eta antropologikoren gainean idazten da.

Ekimen horretan Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak lankide izan dituzte: Jesus Altuna, Adrián Celaya, Jon Irazabal, Iratxe Ruiz de Agirre, Iñaki Anasagasti, Josu Erkoreka, Asier Madarieta, Juan Pardo San Gil, Iñaki Bernardo, José Antonio Rodríguez Ranz, Miren Barandiaran, Koldo San Sebastian, Josu Chueca, Xabier Irujo, Jesús Javier Alonso, Leyre Arrieta, Eduardo J. Alonso, Jean-Claude Larronde, Joseba Agirreazkuenaga, Josy Guetta, Maite Lafourcade, Alberto Plata, Txema Arenzana eta Arantzazu Amezaga, Sabino Arana Fundazioaren beraren teknikari eta historialariez gain.

*** Udako Euskal Unibertsitatearentzako (UEU) artikuluak**

Sabino Arana Fundazioko artxibozaina den Iñaki Goiogana historialariak UEU Udako Euskal Unibertsitateak editatutako argitalpen batean parte hartu du; haren izenburua “LAU HAZETARA”. Gerra zibilaren ondorengo erbestez”, zeinen koordinatzailea Josu Chueca historialaria izan baita.


Goioganaren kolaborazioaren izenburua “Euskal erbesteratuen mundura hurbiltze biografiko zenbait” eta argitalpena osatzen duten bost artikuluetako bat da. Goiogana eta Chueca gain, baita idatzi dute ere Xabier Irujo historialariak eta Emilio López Adán eta Patri Urkizu idazleek.

3.- “HERMES” HISTORIA ETA PENTSAMENDU ALDIZKARIA



Lehenengo lehendakariaren heriotzaren 50. urteurrena zela-eta, Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen *Hermes* historia eta pentsamendu aldizkariak zenbaki monografiko bat (33. zk.) egin zuen, XX. mendeko euskal politikaririk garrantzitsuena izan zenaren figura glosatzeko.

Aipatu zenbakian EAJren EBBko lehendakari Iñigo Urkulluren eta bizirik dauden hiru lehendakari abertzaleen –Garaikoetxea, Ardanza eta Ibarretxe— gogoeta bana jaso dira, baita Iñaki Anasagastik Manuel Irujori 1975ean, Caracas-en, Agirrerri buruz egindako elkarriketa inoiz argitaratu gabe bat ere, bai halaber Ludger Mees eta Xosé M. Nuñez Xeisas irakasleen, Iñaki Goiogana historialariaren eta Andrés Urrutia euskaltzainburuaren artikulu bana. Horiez gain, dokumentu-eranskin batek, argazki-album batek eta hartarakoxe egindako bost artekolaboraziok osatu zuten *Hermes* aldizkariaren zenbaki hau.



Aldizkariaren 34. zenbakiak Afrika hartu zuen gai nagusitzat. Bertan, auzo kontinenteko herrialde batzuen garapen-planak,

lankidetzaz eta etorkizuna aztertu zituzten gai horren gaineko zenbait adituk.

Horrenbestez, Boitshoko Mokgatllek, Afrikako Batasunaren Sudaneko Bitartekaritza Bulegoko Gai Politikoetarako arduradunak, Botswana hurbiltzen gaitu, hain zuzen ere, 1966an munduko herrialderik txiroenetako bat zelarik, orain baina, Britainia Handiarekiko independentzia lortu ondoren eta gobernu onak edukita, Afrikako herrialderik demokratikoenetako bat bilakatu den herrialde batera. Bakeak eta egonkortasunak aurrera nabarmenki egitea ahalbidetu diote.

Bestalde, Eduardo Bidaurrezaga UPV-EHUko Ekonomia Aplikatuaren Saileko irakasleak Kontinentearen orain hurrengo iraganari buruzko bere gogoetak eta haren etorkizuneko aukerak azalduko ditu. Eta Jokin Alberdi UPV-EHUko Konstituzio, Administrazio eta Zuzenbidearen Filosofia Saileko irakasleak EBak, Espainiak eta Euskadik afrikar kontinentearekin dituzten harremanei buruz idatzi zuen.

Zaragozako Unibertsitateko Historia Garaikideko irakasle Fernando Mikelarenak eta NUPko Soziologia Saileko irakasle Ricardo Feliuk artikulu bana idatzi zuten “Eliteak eta klientelismoa Nafarroan” gaiari buruz. Azpimarratzekoak dira halaber, Toni Strubell-ek, *“Hasta aquí hemos llegado. Claves para entender el hartazgo de Catalunya con España”* liburuaren egileak, Katalunian independentziarako egindako kontsultei buruz idatzitako artikulu bat, eta Joan Mari Torrealdai euskal soziologo, idazle eta kazetariari egindako elkarrizketa.

Azkenik, Rosa Miren Pagola Euskal Hizkuntzalaritzan doktore eta Deustuko Unibertsitateko Humanitateak eta Gizarte Zientziak Fakultateko katedradunak Juan Iturralde Suit dakar gogora. Nafar ospetsu hura, Euskal abertzaletasunaren aurrendaria izango zen pentsamolde euskal foruzalearen sustatzaile kartsua izan zen.



Eta azaroan 35. zenbakia plazaratu zen, gai nagusitzat “Biharamuna. Bake bila baikor” hartuta. Zenbaki horretan Bilbon azaldutako irudipenak jasotzen dira. Mintegi horretan Ipar Irlandako biktimak eta biktimak-eragileak eta indarkeriaren ondorioak pairatzen dituzten eta orain elkarrekin lan egiten duten senide israeldar eta palestinarrek bildu zituen.

Zehazki, partehartzaile horiek izan ziren: Jo Berry, *“Building Bridges for Peace”* erakundeko eta “Bakearen aldeko Nazioarteko Sare”ko presidentea; Pat Magee, IRAko ekintzailea eta gaur egun Ipar Irlandako bake-prozesuaren aldeztaria; Aaron Barnea, Gurasoen Elkarte-Familien Mintzagunearen Nazioarteko Harremanetarako arduraduna, eta Ali Abu Awwad, Gurasoen Elkarte-Familien Mintzagunearen eleduna.

Aldizkariaren 35. zenbaki honetan baita nabarmentzekoa da ere eskaintzen den elkarrizketa: Gutenberg Martínez jaunari, Txileko Alderdi Demokratiko eta bere herrialdeko Diputatuen Ganberako presidente ohi, ODCAko mahaiburu, Nazioarteko Kristau Demokraziako presidenteorde eta gaur egun Txileko Miguel de Cervantes Unibertsitateko errektoreari, egindakoa.

4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

MINTEGIAK:

4.1.- "Bake bila baikor. Erronka gaindigarria"

Joan den ekainaren 8an Sabino Arana Fundazioak "Bake bila baikor. Erronka gaindigarria" izenburuko elkarraldi hau antolatu zuen epe ertaineko egitasmo baten lehenengo urrats gisa, hots: Euskadiko herritarrak adoretzea eta motibatzea, giza eskubideen defentsarekin eta indarkeriaren gaitzespenarekin duten konpromisoaz gain, euren baitan pixkanaka harrera egin diezaioten terrorismoak eragindako samin hori eraldatzeko prozesu bati, horretarako, bizikidetza- eta adiskidetzake baten aldeko ahalegin kolektibo bat eginez.



Hizlariak honako hauek izan ziren: Jo Berry, "Building Bridges for Peace" erakundeko eta "Bakearen aldeko Nazioarteko Sare"ko presidentea; Pat Magee, Ipar Irlandako bake-prozesuaren aldeztaila; Aaron Barnea, Gurasoen Elkarte-Familien Mintzagunearen Nazioarteko Harremanetarako arduraduna, eta Ali Abu Awwad, Gurasoen Elkarte-Familien Mintzagunearen eleduna.

Hizlariez gain, mintegian bake eta justiziarekin konprometitutako erakunde eta mugimenduetako ordezkari nabarmen zenbaitek, politika-analistek eta alderdi politikoetako arduradunek ere parte hartu zuten, bai eta helburu harekin berarekin lan egiten ari diren beste elkarte eta talde batzuek ere.

4.2.- "Europa eta Immigrazioa: beharrezana eta ziurtasunik eza" IEDrekin elkarlanean.

Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokraten Institutuak (IED), zein Europako Alderdi Demokratari (EDP) atxikitako fundazio bat baita, "Immigrazioa: beharrezana eta ziurtasunik eza" izenburuko mintegi bat antolatu dute.



Hizlariak **Iñigo Urkullu** EAJ-PNVren EBBko lehendakaria eta, berarekin batera, immigrazioa, kulturantzatasuna eta aldaketa-prozesuak bezalako gaietako aditu zenbait izan ziren, hala nola: **Ricard Zapata-Barrero**, GRITIM-UPFko (Pompeu Fabra Unibertsitateko Immigrazioari buruzko Diziplinariako Ikerketa Taldea) zuzendaria. Haren ikerketa-gune nagusiak honako arlo hauetara daude

zuzenduta: mugak eta dibertsitatea; immigrazioa eta gutxiengo diren nazioak; migrazio-politiken etika eta dibertsitatea egokitze politikak eta kulturarteko ikuspegia; **Antonio Izquierdo**, A Coruña Unibertsitateko Soziologiako katedraduna, zeinek, Unibertsitate horretan bertan, berak sortutako Nazioarteko Migrazioen Soziologiako Lantaldea (ESOMI) zuzentzen duen, eta Zientzia Moral eta Politikoen Errege Akademiako akademikoa eta *Académie Européenne des Sciences, des Arts et des Lettres*-eko kidea ere bada; **Miguel Ángel De Prada**, IOE kolektiboko kidea. Aipatu kolektiboa gizarte-ikerketarako lantalde independente bat da eta 80ko urteetatik eten gabe jardun izan du azken hamarkadotan Estatu espainolean gertaturiko gizarte-eraldaketa handien behaketa eta azterketa egiten; eta **Miguel Laparra**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Lana Saileko zuzendaria, besteak beste.

Topaketan instituzioetako eta zenbait elkarte eta erakundetako hogeita hamar bat ordezkariak parte hartu zuten, denak giza laguntzaren eta immigranteentzako sostenguari arloan lan egiten dutenak. Jardunaldian honako gai hauek izan zituzten hizpide: nazioarteko eta EBeko migrazio-ordena berria; emakumeak enplegua eskuratzea, biztanleriaren zahartzea, mendekotasuna eta gizarte-politikak; xenofobia-agerraldietan politikariek eta instituzioek duten erantzukizuna; Europako integrazio-ereduak: mugak eta gaitasunak; dibertsitatearen dilemei nola aurre egin zenbait Estaturen asmoak gurutzatzen direnean, etab.

4.3.- “III. Bilboko elkarrizketak. Amerikako berrehungarren urteurrenak, etorkizunari begira”



Latinoamerikako independentzien berrehungarren urteurrenak betetzen direlarik, Bilboko Elkarrizketen III. Aldian Latinoamerikaren oraina eta etorkizuna aztertu ziren irailaren 27 eta 28an. Europako eta Latinoamerikako buruzagi politiko eta akademiko batzuk beren artean debatzeko elkartu zituen foro honen azken aldia hiru ardatzen inguruan garatu zen: Amerika Latinoaren lurralde-integrazioa eta Europarekin artikulatzea; Latinoamerikaren

Europararenganako beste begirada bat; eta Latinoamerika XXI. mendeko agertoki berrien aurrean.

Mintegian kontinente bietako zenbait hizlarik parte hartu zuten, besteak beste: Iñigo Urkullu EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarreko presidentea (Euskal Herria); Oscar Ensínck ACEPekeko presidentea; Gutenberg Martínez, Amerikako Kristau Demokraten Erakundeko mahaiburu ohia eta gaur egun *Miguel de Cervantes* Unibertsitateko errektorea; Antonio Carámbula, Uruguayko Turismo Ministerioko zuzendari nagusia eta Frente Amplioren ordezkaria; Rolando García, PANeko (Mexiko) Nazioarteko idazkari ohia eta Mexikoko Immigrazio Institutuko Nazioarteko Harremanen koordinatzailea; Sebastián Acha, *Patria Querida*ko (Paraguay) burukidea,.

HITZALDIAK ETA MAHAINGURUAK:

4.4.- “Txertoen garapen logikoa eta arrazoizkoa; hizlaria, Manuel Elkin Patarroyo.

Manuel Elkin Patarroyo zientzialari kolonbiarra eta Munduan malaria prebenitzeko sortutako lehenengo txerto sintetikoaren egilea Bilbon izan genuen bisitari, 2009ko Sabino



Arana Sarietako bat jasotzeko. Fundazioak bere erabaki eder eta hunkigarria aintzatetsi zion, hau da, Munduko Osasun Erakundeari doan laga izana bere txertoaren patentea, gizateriaren onerako pentsatuz ezi ez aberaste pertsonalean.

Handik egun gutxira, Patarroyo doktoreak hitzaldi bat eman zuen Fundazioaren Gogoeta eta Elkarriketarako Mintzagunean; bertan bere txerto berria tximinoetan lortzen ari den emaitzez mintzatu zen, eta zera esan zuen: “ 20 euro-cent kostatuko da gutxi gorabehera, eta %95etik gorako babes-gaitasuna du, gaixotasun hori prebenitzeko lehendabiziko prestakinak baino % 55 handiagoa”. Orobat, adierazi zuen, “Gizateria gaixotasun kutsagarriak borrokatzeko tresna barik geratzen ari dela”.

4.5.- “Flandriaren eginkizuna erregio-estatu gisa, EBeko belgikar presidentea izan dadinean”; hizlaria, Yves Wantens



Yves Wantens —Flandriaren ordezkaria Estatu espainolean— Bilbon izan zen, otsailaren 17an Sabino Arana Fundazioaren gogoeta eta elkarriketarako mintzagunean hitz egiteko. Hitzaldian bere gobernuaren lehentasun batzuk aurreratu zituen, belgikarrek EBko presidentziaren ardura izango duten sei hilabeteetarako.

Flandriako Erkidego eta Erregioko ordezkariak honako lehentasun hauek nabarmendu zituen: “2020ra arteko estrategia; gizartekotzea; garapen jasangarria; globalizazioa; aldaketa demografikoak; klima; energia, eta, azkenik, erregio-estatuak eta haietako herritarrek izango duten eginkizuna, EBk eta bere erakundeek erabakiak hartzerakoan”.



4.6.- “Itxarobide ekonomikoak”; hizlaria: Luis de Guindos

Apirilaren 15ean Luis Guindos
PricewaterhouseCoopers/
Ikerketarako Enpresa Finantza
Institutuko

zuzendariak ekonomia espainolaz duen ikuspegia eta “lan-merkatua eta aurrezki-kutxak erreformatu beharra”ren kontua garandu zituen.

Lehman Brothers-eko Espainia eta Portugalera presidenten ohi eta PPko gobernuaren Ekonomiako Estatu-idazkari izandakoak ohartarazi zuen “Estatuko susperraldia beste ekonomia aurreratu batzuetan baino geldoagoa izan daitekeela”, eta, horrexegatik, uste zuela beharrezkoa dela “erreforma ekonomikoen programa integral bat abian ipintzea”.

4.7.- Hitzaldia: Konstituzio Epaitegiak Kataluniako Estatutuaz emandako epaia; egilea, Artur Mas

EAJ-PNVko lehendakari Iñigo Urkullu lagun, Convergència i Unió alderdiko presidenten Artur Mas-ek maiatzaren 7an, Sabino Arana Fundazioaren Mintzagunean esan zuen ezen,



Konstituzio Epaitegiak “Estatut”en gainean emandako epaiak “Konstituzioaren interpretazioaren barruan gure asmoen muga zein den” adieraziko duen “foto finish”a emango duela. Ildo horretan, azaldu zuen, kataluniar, euskal eta galiziar nazionalistek gogoetatu beharko luketela, “zentzurik ote duen” azken 30 urteotan jarraitu duten estrategia hori “aurrerantzean ere elikatzen segitzeak”.

Politikari kataluniarrek bere hitzaldian adierazitako iritzietako bat izan zen, hurrengo urteetan “sustraiako erronketako bat Espainiak berak Estatu nazioanitzat izatea ez bereganatzea nola onartzen dugun” ikustea dela.

4.8.- “Immigrazioa eta abertzaletasuna: alderdien agendatarako gaiak”; hizlaria, Ricardo Zapata-Barrero

Ekainaren 3an, Euskalduna jauregian, Ricard Zapata-Barrero, GRITIM-UPFko (Pompeu Fabra Unibertsitateko Immigrazioari buruzko Diziplinar-teko Ikerketa Taldea) zuzendariak “Immigrazioa eta abertzaletasuna: alderdien agendatarako gaiak” izenburuko hitzaldia eman zuen. Ricard Zapata-Barreroren ikerketa-gune nagusiak honako arlo hauek dira:



zuzenduta: Mugak eta Dibertsitatea; Immigrazioa eta gutxiengoan dauden nazioak; Etika eta migrazio-politika, edo Dibertsitatea egokitzeko politikak eta kulturarteko ikuspegia.

Zapata-Barrero irakasleak eginkizun garrantzitsua bete du Kataluniako Autonomia Estatutuaren berrikuspenean, kataluniar nazio-ikuspegitik immigrazio-politikarik egokiena zein izango litzatekeen planteatu zuelarik.

4.9.- Mahaingurua: “Bake bika baikor. Erronka gaindigarria”



Sabino Arana Fundazioak mahainguru hau antolatzearen helburua diagnostiko bat egitea izan zen, hots: Israel-Palestina eta Ipar Irlandako gatazketan erasandako kolektiboen esperientzia pertsonal eta sozialetan oinarritua, Euskadin ere zein neurritan aurrera egin daitekeen eta, halaber, bizikidetzaz- eta adiskidetzaz-bake bat lortu daitekeen.

Partehartzaileak izan ziren: Jo Berry, “*Building Bridges for Peace*” erakundeko eta “Bakearen aldeko Nazioarteko Sare”ko presidentea; Pat Magee, Ipar Irlandako bake-prozesuaren aldeztaila; Aaron Barnea, Gurasoen Elkarte-Familien Mintzagunearen Nazioarteko Harremanetarako arduraduna, eta Ali Abu Awwad, Gurasoen Elkarte-Familien Mintzagunearen eleduna.

4.10.- Mahaingurua: “Euskaldunak Mexikoren independentziaren berrehungarren urteurrenean”



Ruiz de Gordejuela; eta Deustuko Unibertsitateko Historia Modernoan eta Garaikidean doktore Begoña Cava.

Mexikoren independentziaren berrehungarren urteurrena ospatzearen zuzuan, Sabino Arana Fundazioak eta Mexikoren Bilboko Ohorezko Kontsuletxeak mahainguru bat antolatu genuen irailaren 16an, Bizkaiko hiriburuko Melia hotelean, honako hauek parte hartu zutelarik: Jaime del Arenal, mexikar historialaria eta Espainiako *Instituto de México*ko zuzendaria; Euskal Herriko Unibertsitateko Historian (Amerikaren Historia) doktore Jesús

Izenburu orokorra “Euskaldunak Mexikoren independentziaren berrehungarren urteurrenean” izan zen, eta horri atxikita, hiru historialariek euskaldunek XIX. mendean Mexikoko lurretan izan zuten parte hartzea eta, zehazkiago, herrialdearen independentzia lortzeko egin zuten ekarpena aztertuzituzten.



4.11.- Mahaingurua: “Krisia Latinoamerikako hiru ikuspegi desberdinetatik: Txile, Argentina eta Mexiko”

Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokraten Alderdiak, Europako Parlamentuaren lankidetzarekin, antolatutako “*III. Bilboko elkarrizketak: gure munduraren eraldaketa. Amerikako berrehungarren urteurrenak, etorkizunari begira*” jardunaldien barruan, irailaren 28an mahainguru bat egin zen, “Krisia Latinoamerikako hiru ikuspegi desberdinetatik: Txile, Argentina eta Mexiko” gaia aztertzeko”.

Gutenberg Martínez, Txileko *Miguel de Cervantes* Unibertsitateko errektorea eta Txileko Diputatuen Ganberako eta ODCAko (Amerikako Kristau Demokraten Erakundea) mahaiburu ohia; Gustavo Zavallo Argentinako Peronismo Federaleko (PF) parlamentaria; eta Rolando García PANeko (Nazio Ekintzarako Alderdia) nazioarteko idazkari ohia eta Mexikoko Immigrazio Institutuko Nazioarteko Harremanen koordinatzailea.

4.12.- Hitzaldi-sorta: “Bidasoako historia”

Irun Hogeitabat foroak eta Hondarribiko Zumardikoak elkarteak, lau hitzaldik osatutako hitzaldi-sorta bat antolatu zuten, Sabino Arana Fundazioak lagunduta, azaroaren 17an eta 18an. Haien bidez Bidasoako orain hurrengo historiako gertakariak nabarmenenetako batzuk berraztertu ziren, bai halaber horietako protagonista batzuk gogoratu ziren.

Horrenbestez, hilaren 17an, asteazkenarekin, Irungo Nabartenea Liburutegian, Jean-Claude Larrondek, besteak beste, “Luis Arana Goiri (1862-1951). Historia del Nacionalismo Vasco” liburuaren egitelak Luis Aranaren, bere naia Sabinorekin batera EAJ-PNV sortu zuenaren, figura aztertu zuen.

Ondoren, *Universidad Nacional de La Plata*ko (Argentina) historia-irakasle eta Arturo Campion Euskal Ikasketa Zentroko kide Cesar Arrondok “Euskal diasporaz” hitz egin zuen.

Biharamunean, azaroaren 18an, ostegunarekin, Hondarribiko Arma Plaza Interpretazio Gunean, *Hendaia 1940* (Bigarren Mundu Gerran alemanek herri hori okupatu zutenekoa) eta *Gipuzkoa 1940* (gerran alemanak lurralde historiko horretan egon zireneko argazki-egunkaria) liburuen egile Ramon Barea historialariak “Mugazgaindiko nazismoa”z hitz egin zuen. Eta azkenik, Aitor Puche historialari irundarrak Guadalupeko gotorlekuaren historia gogorarazi zuen.

4.13. – Afrikari buruzko hitzaldi-sorta

Josep Maldonado CiUko senatari eta AWEPAko (Afrikaren aldeko Europar Parlamentarien Elkartea) Espainiarako arduradunak hitzaldi bat eman zuen abenduaren 2an, Sabino Arana Fundazioak antolatutako “*Afrikaren taupada XXI. mendean*” izenburuko hitzaldi-sortaren barruan.



Josep Maldonadoren solasaldiko mintzagai nagusia afrikar kontinenteak aurrean dituen erronkak izan ziren.

Beste alde batetik, Johan Van Hecke ALDEPACeko (Europa, Barea, Afrika eta Karibearen aldeko Liberal eta Demokraten

Aliantza) presidente eta Flandriako europarlamentariak Sabino Arana Fundazioak antolatutako “Afrikaren taupada XXI. mendean” hitzaldi-sortan” parte hartu zuen, eta, esan zuen, besteak beste: *“Afrika une honetan orain dela hamarkada bat baino hobeto dago”*.

Behin eta berriz Afrikara egin ohi dituen bidaia horietako batetik itzultzean, ALDEPAC-eko presidenteak adierazi zuen ezen, *“astiro baina urrats irmoz, Kontinente hura egonkortasunerako bidean doala, txirotasun latza murriztuz, eta demokrazia hobetzeaz batera garapen jasagarri bat lortuz”*.

Sabino Arana Fundazioak 2007an eta 2009an, hurrenez hurren, hitzaldi-sorta bana antolatu zuen, afrikar labirintu korapilatsua pixka bat sakonago ezagutzeko eta Kontinentea osatzen duten herrialdeen konplexutasuna ulertzeko. Orduko haietan xedea, besteak beste, honako puntu hauek aztertzea izan zen: Afrikako herrialde askok gaur egun bizi duten azpigarapen-egoera; indarkeriazko gatazkak; ustelkeria kasuak eta abar, zeintzuek zerikusi handia izan baitute herrialde haien txirotzearekin. Hartara, bada, orduko ekitaldietan Sudanen, Boli Kostaren, Angolaren, Botswanaren eta Kongoko Errepublika Demokratikoaren ordezkariak izan genituen hizlari. 2010 honetan, oster, Afrikako berrogeita hamahiru herrialdeetatik hamazazpik euren independentzia nazionala nahiz nazioartekoa lortu izanaren 50. urtemuga ospatu dutelarik, beste ikuspuntu batetik begiratu nahi izan diogu kontinente horri, hots: Afrika oparo, berri eta aurrerantz doanarenetik, besteak beste; azken buruan, XXI. mendeko Afrikarenetik.

AL 50 PROGRAMA BEREZIA:



Jose Antonio Agirre Lekube lehenengo lehendakariaren heriotzaren 50 urteurrena gogoratzea xede, hainbat ekitaldi egin nahi zirelarik, 2009ko irailaren 24an hedabideen aurrean iragarri zen hartarako batzorde bat eratu zela. Handik gutxira, azaroaren 2an, batzorde hori ofizialki eratuta geratu zen; bertan Agirre lehendakariaren jardura politikoarekin eta pertsonalarekin zerikusia izan zuten erakunde guztiek, beraren senide propioak eta harekin lan egin zuten beste kide

batzuk daude ordezkatura.

Otsailaren 24an Batzordeak hedabideei aurkeztu zieten jardueren egitaraua, zein 2010 osoan garatuko baita. Ondoren, Sabino Arana Fundazioak AL50 Batzordearentzat egindako jardura guztiak aipatzen ditugu.



1.- Web orria: lehendakariagirre.eu

2010eko otsailaren 24an www.lehendakariagirre.eu web orria aurkeztu genuen Bilboko Carlton hotelean; orri horretan informazio oparo

eta zabala ipintzen da, Jose Antonio Agirre lehendakariaren ibilbidea, jaio zenetik eta heriotzara arte, ezagutu nahi duenaren eskueran; informazio ugari hori testu-dokumentu eta ikus-entzunezko (argazkiak, filmak eta soinu-grabazioak) askotan dago bilduta. Milatik gora dokumentu *on-line*, Lehendakariaren jendaurreko solasaldi eta hitzaldiak, kazeta-artikuluak, adierazpenak, mintzaldiak, egunkariak, liburuak, hitzaurreak, mezuak eta abar dituztenak, eta horiei guztiei erantsi behar zaizkie Europako eta Amerikako argitalpenetako ehunka prentsa-ebakin, zeintzuek Jose Antonio Agirreren irudia eta jarduerak erakusten dizkiguten, munduan zehar egin zituen bidaietatik bilduak.

Baina, gainera, web orri horrek beste urrats bat egiten du bere edukiak ezagutarazi guran, eta ez da informazio historikoa dakarren halako web orri batean geratzen, ezpada ze, eduki horiek beroriek gaurkotasanik bizienarekin ere erlazionatu nahi ditu, gizarte-webeko zenbait plataformatan ere baitago. “Lehendakari Agirre”k helbideak ditu twitter, flickr, facebook eta youtuben, eta horien bitartez hornituko zaio komunitate birtualari, 2010 honetan Jose Antonio Agirre omentzeko egingo diren kultur ekitaldien gaineko informazio guztia.

2.- Gomuta-meza Begoñako Basilikan

Instituzioetako ordezkaritza ugaria eta Euskadi guztiko politika-, kultura-, gizarte-, ekonomia- eta kirol arloetako pertsona nabarmen asko bildu ziren martxoaren 23an Jose



Antonio Agirre Lekuberen aldeko gomuta-mezara, Begoñako Basilika mukuru beteta egon zelarik. Hain zuzen ere, meza hori lehenengo euskal lehendakariaren heriotzaren 50. urteurrenaren kariatara ospatu zen.

Ricardo Blázquez Bilboko gotzainak eman zuen meza, beste ia ehun apaizek eraso ziotelarik.

Agirre lehendakariaren seme-alabak, Aintzane eta Joseba, izan ziren segizio-buru, haiekin Euskadiko politika- eta gizarte-esparruetako ordezkari zenbait, besteak beste: EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarreko lehendakari Iñigo Urkullu; Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio sailburu eta haren eledun Idoia Mendia; Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ahaldun nagusiak, Xabier Agirre, Jose Luis Bilbao eta Markel Olano, hurrenez hurren; Juan M^a Atutxa, Sabino Arana Fundazioko lehendakaria; Miguel Ángel Fernández, Gobernuaren Bizkaiko azpiordezkaria; Rafael Bengoa, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua; Iñaki Azkuna, Bilboko alkatea; Ana Madariaga, Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria; José Manuel Salinero, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariatzako idazkari nagusia; Carlos Garaikoetxea, Jose Antonio Ardanza eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariak; Iñaki Galdos, Hamaikabateko lehendakaria, eta abar.

3.- Agirre lehendakariari eskainitako Hermes en zenbaki berezia



Martxoaren 30ean, Gipuzkoako Foru Aldundian zenbaki berezi bat aurkeztu zen, osos-osorik Agirre lehendakariari eskainitakoa berori.



Aipatu argitarapenean —33. zenbakia— EAJren EBBko lehendakari Iñigo Urkulluren eta bizirik dauden hiru lehendakari abertzaleen —Garaikoetxea, Ardanza eta Ibarretxe— gogoeta bana jasotzen dira, baita Iñaki Anasagastik Manuel Irujori 1975ean, Caracas-en, Agirreri buruz egindako elkarrizketa inoiz argitaratu gabe bat ere, eta halaber Ludger Mees eta Xosé M. Nuñez Xeisas irakasleen, Iñaki Goiogana historialariaren eta Andrés Urrutia euskaltzainburuaren artikulu bana. Horiez gain, dokumentu-eranskin batek, argazki-album batek eta hartarakoxe egindako bost arte-kolaboraziok osatuta etorri zen *Hermes* aldizkariaren zenbaki hori.

2.700 ale argitaratu ziren.

4.- Agirre lehendakariaren egunkariak



Agirre lehendakariaren seme Joseba Agirrek eta Iñaki Goiogana historialariak Jose Antonio Agirreren egunkariaren edizio faksimilea aurkeztu zuten maiatzaren 25ean, Euskalduna jauregian.

urtarrilaren 7an hasi eta idazteari utzi zion Agirrek urtebete eta erdian egunez egun, erregistro pertsonal bat da.

Bost koaderno dira, eta haietan, naziek okupatutako Europatik Ameriketarantz ihesi abiatu zen egun berean Lehendakaria idatziz jasotzen joan zen oharrak eta bizipen pertsonalak irakur daitezke, hau da, 1941eko eguna, 1942ko maiatzaren 28a, bitartekoak. egun batean ere huts egin barik, egindako

Irakurleak egunkariaren orrialdeetan zehar, Lehendakariak eta familiak Bruselatik Ameriketaraino egindako ibilbidea jakin ahalko du; zeregin horretan nork lagundu zion jakingo du, hegoamerikar diplomazialari batzuen konplizitatearen berri izango du, britainiar eta estatubatuar zerbitzuekiko harremanen berri, etab., Agirre Zabalatarren famili bizitzaren zati batzuez gain.

1.000 ale kaleratu ziren.

5.- EHUko Udako Ikastaroak

Donostiako Miramar jauregian egin zen “*Nork egiten du historia? “Buruzagitza XX. mendeko politikagintzan”*”. Jose Antonio Agirre lehenengo lehendakariaren heriotzaren 50. urteurrenean” izenburuko ikastaroa, uztailaren 5a eta 8a bitartean; zenbait hitzaldi eskaini ziren egunero, goizez eta arratsalde, zenbait unibertsitate-katedradun nabarmenek eta arloko adituk emanda.



Inaugurazio-ekitaldia uztailaren 5ean, astelehenarekin, izan zen, honako hauen eskutik garatu zelarik: **Patxi López** Eusko Jaurlaritzako lehendakaria; **Iñaki Goirizelaia**, EHU/UPVko errektorea; **Juan M^a Atutxa**, Sabino Arana Fundazioko lehendakaria; eta ikastaroen zuzendariak, hots, **Ludger Mees** (EHU/UPV) eta **Xosé Manoel Núñez Seixas** (Konpostelako Santiagoko Unibertsitatea).

Ondoren, hasierako hitzaldia izan zena **Hans-Jürgen Puhle** irakasleak (Frankfurt-eko Unibertsitatea) eman zuen. Gero, **José Álvarez Junco** (Madrileko Unibertsitate Konplutensea) mintzatu zen; eta arratsaldeko saioan **Borja de Riquer i Permanyer**-ek (Bartzelonako Unibertsitate

Autonomia) jardun zuen.

Asteartean, uztailaren 6an, honako hauek mintzatu ziren: goizean, **Ludger Mees** (EHU/UPV), **José Luis de la Granja** (EHU/UPV) eta **Xosé Manoel Seixas** (Konpostelako Santiagoko Unibertsitatea), eta, arratsaldean, **Iñigo Urkullu** (EAJ-PNVren EBBko lehendakaria).



Asteazkenean, hilak 7, **Santos Juliák** (UNED); **Susana Taverak** (Bartzelonako Unibertsitatea) eta **Antonio Riverak** (EHU/UPV) hitz egin zuten.

Eta azken saioan, hilaren 8an, ostegunarekin, “**Martin Baumeister** (Munich-eko Unibertsitatea), **Aurora Bosch** (Valentziako Unibertsitatea), eta **José M^a Faraldo** (Madrileko Unibertsitate Konplutensea) mintzatu ziren.

Ikastaroaren itxiera-ekitaldia **José Antonio Ardanza** lehendakariaren eta **José María Benegas** PSEko idazkari nagusi ohi, Euskal Kontseilu Nagusiko Barne sailburu ohi eta eta PSEko diputatuaren ardura izan zen.

6.- Agirre lehendakariaren zin egitearen eta lehenengo Eusko Jaurlaritzaren eraketaren antzezpena

Orain dela 74 urte, 1936ko urriaren 7an, Jose Antonio Agirre Lekubek Gernikako Arbolaren pean zin egin zuen lehendakari kargua, eta Euzkadiko Jaurларitza ere orduantxe eratu zen. Aurten, gure lehenengo lehendakariaren heriotzaren 50. urtemugara iritsi garelarik, AL50 Batzordeak gertaera historiko bi haien antzekizun bat antolatu du Gernikako Batzar Etxean, haiek ekitaldi gertatu ziren leku berberetan.



Aktore eta figurantetan bakarrik, 90 pertsonak parte hartu zuten gogorapen hartan, Gerra Zibila bete-betean zela, urte odoltsu eta zail haietan, gertakari historiko bihurtu ziren ekitaldi haiek birsortzen, alegia.

Erdi Aroko trobadore batek — Niko Etxart— eta bufoi batek egin ziguten ongieta. Dena lotzen zuen haria narratzaile baten ardura izan zen; hark ematen zien sarrera arizaleei.

Gobernu-hartzeko hitzaldiek, agintari-mahaia foru-tankeraz eratzeak, lehenengo Eusko Jaurларitza hartako partehartzaileek, kontsulek, ekitaldira gonbidatuek, Errepublikaren ordezkariak, herriaren parte hartzeak, miñoiek, foralek eta mikeleteek, bakoitza bere aldundia ordezkatzuz, gudarien desfileak, euren banderadun eta guzti, eta lehenengo Eusko Jaurларitza hari egindako armak aurkezteak, 1936ko urriko 7 hartan bizi izandako une zirraragarriak gogorarazi zizkiguten.

Sasoi hartako jantzi eta atrezzoarekin, ekitaldian baita parte hartu zuten ere Ertzaintzaren



Musika Bandak, Gernikako Gaudeamus abesbatzak, Beti Jai Alaiko dantzariek eta Bilboko Txistularien Bandak.

Gontzal Mendibil antzezpen-sortzaile eta zuzendaria, Ramón Agirrek, Lehendakariaren ilobak, hezurmamaitu zuen, Euskadin XX. mendean eraginik handiena izan duen politikaria.

Handik gutxira, abenduaren 6an, agertokiratze horren edukia jasotzen duten liburu bat eta 45 minutuko DVD bat aurkeztu ziren Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan. Sorta horren izenburua: “Agirre lehendakaria. Zin dagit. Gernika 1936-10-7”.



7.- Columbiako Unibertsitateak (New York) gorazarre Jose Antonio Agirreri

Columbiako Unibertsitateak (New York) gorazarre ospatu eta hunkigarri bat egin zion Agirre

lehendakariari. Joseba Agirre lehenengo lehendakariaren semeak, sendiko beste kide batzuekin batera, plaka oroigarri bat jaso zuen Columbiako Unibertsitateko Europar Ikaskuntzen Institutuko zuzendari Victoria De Grazia andrearen eta Ikaskuntza Latinoamerikarren eta Migrazioari buruzko Foroko zuzendari José C. Moya jaunaren eskutik. Plaka ematea, AL50 Batzordeak, *Barnard College*ren Migrazioari buruzko Foroak eta Columbiako Unibertsitateko Europar Ikaskuntzen Institutuak, Agirre lehendakariaren heriotzaren 50. urteurrena oroitzea helburu, elkarlanean antolaturiko ekitaldi akademiko baten atarikoan izan zen.

Ondoren, “*Europako abertzaletasunak diasporan: atzerrira emigratutako euskaldunen, kataluniarren, galiziarren, irlandarren eta poloniarren aktibismo politikoa*” izenburupean egin zen ekitaldi akademikoaren lehenengo zatian, Ludger Mees EHUKo Historia Garaikideko katedradunak “*Euskal abertzaleak eta errepublikarrak erbestaldian*” gaiaz jardun zuen; eta Xosé Manoel Núñez Seixas Konpostelako Santiagoko Unibertsitateko Historia Garaikideko katedraduna “*Kataluniar eta galiziar abertzaletasunak Kuban eta Argentinan*” izenburuko gaiaz mintzatu zen.

Mintegiaren bigarren zatian, David Brundage, Kaliforniako Unibertsitateko Santa Cruz kanpusekoa berori, “*Erbestaldiko politika: irlandar abertzaleak Estatu Batuetan (1798-1998)*” gaiaz mintzatu zen; eta M. B. Biskupskik, Connecticut-eko Estatu Unibertsitate Nagusikoa berori, bestalde, “*Asmatutako Polonia bat: emigratuen ikuskerak*” hartu zuen mintzagai.

8.- Agirre lehendakariaren biografia /Ikerlana

Jose Antonio Agirre XX. mendean eraginik handiena izan zuten politikarietako bat izan zen, bai halaber herrikoienetakoa. Hala ere, benetan harritzekoa da, oraindik gaur egun ere, euskaldunen lehenengo lehendakariaren biografia oso bat ez egotea; hain zuzen ere, azken urteotan argitaraturiko biografia politikoekin homologagarria eta hurrengo irizpide hauek beteko lukeena:

- Agirreren bizitza politiko osoa jasotzea, jarraitutasunak aztertu ahal izateko ez ezik, baita haren jardueran eta pentsamoldean gertatutako biraketak eta aldaketak ere;
- azterlana zorrotasun zientifikoan eta objektibotasunaren bilaketan oinarritzea;
- agiritegi, artxibategi, hemeroteka eta biblioteketan eskura dauden iturrien araketa exhaustiboa egitea;
- Erredukzionismo hagiografikoak ekiditea, hau da, beti iturrietan oinarrituta, euskal lehendakariaren ondo eginen eta lorpenen grinarik bako balorazio bat ez ezik, ber gisan, haren porroten eta huts egiteena lortzea xede.
- argitalpen bat aurkeztea, 400 edo 500 bat orrialdekoa, non zorrotasun zientifikoa idazkera erraz eta atseginaz jantziko baita; horrek interes handiagoa

sorraztea ekarriko du, ez bakarrik esparru akademikoetan, baita irakurleria landu eta zabalago batean, euskal historia eta politikagintzan interesatuan, ere.

- gogoeta egitea Agirre lehendakariaren ondare politikoak XXI. mendeko Euskadirentzat duen esanahiaren gainean.

Horiexek dira, hain justu, ikerlan-proiektu horrekin lortu asmo diren helburuak.

Ikerlan horren oinarritzko egitura EHUko ikerketa-talde sendo bat izango da. Egitasmoaren zuzendaria eta ikertzaile nagusia Ludgeer Mees EHUko Historia Garaikideko katedraduna da. Ikerlan-egitasmoaren egilekide eta lankideetako bi ere aipatu taldeko kideak dira, zehazki, Santiago de Pablo eta Jose Luis de la Granja Historia Garaikideko katedradunak, zeintzuk euskal historia garaikidea, oro har, eta euskal abertzaletasunarena, bereziki, hobekien ezagutzen dituzten aditueta bi baitira. Laugarren egilekidea Jose Antonio Rodriguez Ranz da, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta, halaber, euskal abertzaletasunaren historiako aditu ospetsua. Lantaldea Virginia Lopez de Maturanak osatuko du, dokumentalista gisa berori.

Ikerlan horretan ezarritako helburuak jadetsi ahal izateko, ezinbestekoa izango da, gutxienez hiru urteko epea hartzea egitasmoa gauzatzeko, hau da, dokumentazio-bilketa egiteko, dokumentuak aztertu eta baloratzeko eta, azkenik, eskuizkribua idazteko.

5.- GAZTERIA

5.1.- “Gizarte-sareak, Internet, sakelakoa... Balia itzazu, zeu baliogabetu barik”



Sabino Arana Fundazioak jardunaldi bat antolatu zuen joan den azaroaren 29an, Bilboko Euskalduna jauregian. Saioak goizez eta arratsaldean izan ziren, eta berorien helburua, gizarte-sareen, Interneten eta sakelako telefonoen mundua sakonago ezagutzea, halakoak egokiro erabiltzeaz eta berorien arriskuez eta potentzialtasunez hitz egiteko.

Gizarte-sareak, Internet, sakelakoa..., balia itzazu, zeu baliogabetu barik” izenburu orokorraren pean, goizeko saioan, zein gazte jendeari (DBH, Batxilerra eta LH) zuzenduta baitzegoen, 500 ikasle baino gehiago bildu ziren Javier Etxebeste, Yahoo Iberiako presidente ohia eta Manuel Iarzal telefonía mugikorrean aditua entzutera.

Javier Etxebeste, online munduak herritar guztiei eta, bereziki, gazteenei, dakartzkien onurak ondo ezagutzen dituelarik, haiek egin ditzaketen oker arriskutsuenez hitz egin zien.



5.3.- Ikastetxe batzuen bisitaldiak Euskal Abertzaletasunaren Museora, Bizkaiko Foru Aldundiaren “Bizkaitik-Bizkaira” programaren bitartez.

Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Museoak DBHko 4. mailako ikasleei zuzendutako “Bizkaitik Bizkaira” hezkuntza- eta kultura-programan parte hartzen du, ikasleek Bizkaiaren ondare historikoa ezagutu ahalko dute Baserri eta Mitoen ibilbideari jarraituz. Hartara gure arbasoak nola bizi ziren eta nola lan egiten zuten ikusiko dute, eta horretarako hainbat leku esanguratsu bisitatuko dituzte: Dima, Jentilzubia, Baltzolako Kobak, Baserriaren Ekomuseoa, Euskal Abertzaletasunaren Museoa, Areatza herria eta Gorbeiaiko Parke Naturala.

5.4.- Ahozko historia-tailerrak



Ikasturtean zehar ikastetxeetako hainbat ikasle-talde ere izan ditugu bisitari, kasurik gehienetan, ematen ari garen asti libreko tailerrek erakarrita.

Historia-tailer horiek 12 eta 18 urte bitarteko gazteen eta, Euskadiren historiako hainbat gertaera zuzenean bizi izan zituzten zenbait pertsonaren arteko topaketak bideratzen laguntzen dute. Horren guztiaren osagarritzat bideo-emanaldiak ere izango dira; gainera,

neska-mutilek protagonistei galderak egin ahalko dizkiete hizpide den sasoiaz eta haiek bertan bete zuten eginkizunaz.

Euskal Abertzaletasunaren Museotik igarotzen joango diren gonbidatuek Gerra Zibila, espetxean izandako bizipenak, trantsizioa, euskal kultur produkzioa, gudarien batailoien eginkizuna, ikurrinaren legeztatzea, diaspora eta horrelako beste gai batzuez mintzatuko dira.



Tailer horiek Museoak Manu Egileor erakustaretorako antolatzen dituen aldi baterako erakusketei atxikita daude.

Martxoaren 25ean egin zen historia-tailerrean Jose Follá Goriba erbesteratuaren eta haren ama eta anai-arreben eta Iñaki Egaña Aranzadi Zientzia Elkarteko kidearen laguntza izan genuen, memoria historikoaren berreskurapenaz mintzatu zirelarik. Orduko horretan Durangoko “Frai Juan de Zumarraga”

Bigarren Hezkuntzako Institutuak parte hartu zuen.

Martxoaren 26an egin zen historia-tailerrean José Moreno “San Andres” batailoiko gudariaren eta Iñaki Egaña Aranzadi Zientzia Elkarteko kidearen laguntza izan genuen, memoria historikoaren berreskurapenaz mintzatu zirelarik. Orduko horretan Durangoko “Frai Juan de Zumarraga” Bigarren Hezkuntzako Institutuak parte hartu zuen.

6.- EUSKARA

6.1.- “Euskararen indarberritzea XXI. mendean: aukerak eta erronkak”

- **Irratsaio berezia Onda Vascan**



Euskarak eta gutxiengo-hizkuntzek Europan bizi duten egoera aztertzea xede, Sabino Arana Fundazioak antolatu zuen jardunaldi bikoitzaren barruan, urriaren 20an Eusko Legebiltzarreko ia talde guztien ordezkariak debate bat izan zuten Euskalduna jauregian, *Onda Vascaren* irratsaio berezi batean.

Hizpidetzat hartutako gaia euskarak XXI. mendean dituen aukerak eta erronkak izan zelarik, partehartzaileak izan ziren: Arantza Aurrekoetxea (EAJ-PNV); Mikel Basabe (Aralar); Mikel Arana (EB); Juan José Agirrezabala (EA); eta Gorka Maneiro (UPyD). PPK eta PSEk uko egin zioten gonbidapenari.

- **Mintegia Donostiako Londres hotelean.**



Euskarak eta gutxiengo-hizkuntzek Europan bizi duten egoera aztertzea xede, Sabino Arana Fundazioak antolatu zuen jardunaldi bikoitzaren barruan, urriaren 21ean elkarraldi bat egin zen Donostiako Londres hotelean, non botere publikoetako, unibertsitate-esparruko eta beste instituzio eta elkarte batzuetako hogeita hamar bat ordezkariak parte hartu baitzuten. Arloko aditu horiek zenbait esparrutan hizkuntza

gutxituen erabilpena sartzearen garrantziaz hitz egin zuten.

Especialista horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste: Bernat Joan i Mari Kataluniako Generalitatearen Hizkuntza Politikarako idazkaria; Patxi Baztarrika, Andoaingo Udaleko Euskara arloko arduraduna eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde ohia; Andrés Urrutia, euskaltzainburua; Joxan Muñoz, Tabakalerako zuzendari ohia; eta Konrado Mugertza, Eskola Kontseiluko presidente ohia, etab.

7.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA

Zenbakiak laburki. 2010eko berritasunak

- 944 LIBURU GEHIAGO ERANTSI DIRA BIBLIOTEKARA
- 278 KONTSULTA JASO DIRA (2009an baino % 30 gehiago)
- 140 ALDIZKARI IZENBURU GEHIAGO (5.000TIK GORA ALE)
- 58 IKERTZAILE ARETOAN
- 51 DOHAINTZA JASO DIRA (18 DOHAINTZA-EMAILE BERRI)
- 11 ARTXIBO-KUTXA (DESKRIBATUTAKO DOKUMENTAZIOAK 1,30 METRO LINEAL HARTZEN DITU)
- 36 DVD
- 32 CD
- 2 BIDEO-ZINTA (VHS)

I.- AGIRITEGIAN EGINDAKO LANAK (ARTEA)

A) ARTXIBOKO DOKUMENTAZIOA.

- Jokin Intza agiri-funtsa sailkatu, antolatu eta deskribatu.
- “Euskal ebakuazioa eta migrazioa, 1937 – 1940” datu-basea mantentzeko beka amaitu da. Hura 6.000tik gora fitxak osatuta dago.
- Dohaintzak “Dohaintza-emaileak” eta “Funtsak” datu-baseetan erregistratu, eta urte osoan jasotako partikularren berrogeita hamar bat dohaintzen banan-banako inbentarioen idazketa egin. Inbentarioetan deskribapenak dokumentazio motaren arabera sailkatu eta antolatzen dira: Artxiboko agiriak, Bibliotekakok, Hemerotekakoak, edo Ikus-entzunezko Materiala dokumentazioa diren.
- Loiola Irratiaren funtsa jaso eta instalatu. Funtsa soinu-material (discoak), material bibliografiko eta agiritegi-dokumentazio ugari osatutako dago.

B) BIBLIOTEKA FUNTSAK

Abertzaletasunaren Agiritegiaren Liburutegian 2010/12/31 bitartean erregistraturiko monografiak **37.150** izan dira. Urtebete horretan beste **944 ale** erregistratu dira, hala datu-basean (deskripzioa), nola fisikoki apalean ipinita. Hala ere, kontuan hartuta laster gauzatuko zen instalazio-aldaketa eta liburukiek izango zuten kokapen berriaren arabera, edo Artean edo Bilbon, sailkatu beharra, azken 4 hilabetean 7.000 liburu baino gehiago erabili dira eskuetan: aurreko lonjatik Artxibora ekarri; Arte / Bilboren arabera sailkatu; datu-basea aldarazi; kutxetan sartu, garraiatzeko, etab.

C) "UZTURRE" HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako agerkarien aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu da. 2010ean lehen ez zeuden beste **140** izenburu gehitu zaizkio Hemerotekari. Une honetara arte "Uzturre" Hemerotekak dagoeneko **6.349** izenburu desberdin dauzka, guztira 157.000 ale direlarik.

“Hustuketa” datu-basean (zenbait aldizkaritan argitaratutako artikulua informazio historikodunekin: Euzkadi, Alderdi, Hermes, etab.) dagoeneko **4.840** erregistro daude.

D) AGIRRE LEHENDAKARIAWEB ORRIA (AL50 BATZORDEA)

Sabino Arana Fundazioak 2010aren hasieran aurkeztu zuen, berori puntuan jartzeko, mantentzeko eta bertako edukiak eguneratzeko (albisteak batez ere) lanek testuak sortu, zuzendu eta itzuli (euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa) beharra eskatu die Agiritegiko teknikariei, baita web orriko datu-baserako dokumentuak eta irudiak (prentsa-ebakinak, Agirrerren Egunkaria aplikazioa, etab.) hornitzea, AL50 Batzordearen urte osoko jardueraren jarraipena egitea eta, aipatu batzordeak sorrarazitako edukiak gizarte-sareetan

ezagutaraztea, eta haiek transmititzeaz arduratzen diren enpresekin (Bilbomática eta Digitalak) etengabe kontaktuan egotea ere.

II.- KONTSULTAK - AHOLKULARITZA HISTORIKO-DOKUMENTALA – LANKIDETZAK – JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA- EDITORIALA

- Kontsultak:

Abertzaletasunaren Agiritegian **278** informazio-eskaera (aurreko urtean baino % 30 gehiago) jaso dira 2010ean, postaz, posta elektronikoz, web orriz, telefonoz, faxez, nahiz aurrez aurre. Nabarmentzekoa da, bestalde, gauza berri gisa, guri kontsultak helarazterakoan gehien erabili den bitartekoa (% 35,6) geure web orrian ostatutako formularioak izan direla, lehenengo bider gertatzen dena, eta ondoren posta elektronikoa (% 33).

- Aholkularitza historikoa eta dokumentaziozkoa:

. DEIArako Hermes aldizkarirako artikuluak

- Lankidetzak:

. Agirre lehendakariari buruzko solasaldiak Errekaldeko (2010/04/8an) eta Portugaleteko (2010/05/6an) batzokietan.

- Jardunaldietan parte hartzeko:

. NISeren biltzarra Skopian (Mazedonia): Sabino Arana Fundazioaren eta Abertzaletasunaren Agiritegiaren aurkezpena . 2010eko maiatza.

. Ikastaroa Udako Euskal Unibertsitatean, Baionan, erbestaldiari buruz, 2010eko uztailan.

- Argitalpen-kontrola:

. Luis Aranari buruzko liburua,
. Felipe Egigurenen liburua.
. Agirreren egunkariak.

III- PARTIKULARREN DOHAINTZAK

Artxibo-materialetan 2010/12/31 bitartean izan ditugun dohaintza-emaileak 1.288 izan dira. Urte horretan **51** pertsonak lagundu zioten Abertzaletasunaren Agiritegiari, dohaintzak eginaz. Kopuru horretatik 18 dohaintza-emaile berriak izan ziren.

IV.- IKERTZAILEAK

2010ean gure agiri-funtsak **58** ikertzailek kontsultatu dituzte aretoan.

8- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA



8.1.- URTEKO BALANTZEA

Joan den 2010eko ekitaldian Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak ahalegin berezia egin du bere funtsak Manu Egileor eraikinean berrinstalatzeko, han bildu baitugu museo-material guztia. Ildo horretan, gure funtsen zati handi bat, eta dohaintzen ondorioz erantsi zaizkien berriak, antolatzen dihardugu.

Hurrengo hauen inbentario exhaustiboa egin dugu:

- Ehungintzako funtsa: inbentario berria egiten jarraitu dugu, pieza batzuk berrinstalatzeko eta eskuratutako berrien inbentarioa eginez.

- Argazki-artxiboa: argazki digitalen artxiboko lau milatik gora irudi erregistratu eta katalogatu ditugu, eta geure zigilua txertatu.
 - Partikularren dohaintzetako milatik gora positibo erregistratu eta katalogatu, geure zigilua txertatzeaz gain.
 - Erregistraturiko irudien deskribapen fisikoa eta kontrastezko tratamendua.
 - Identifikatzaileen inbentarioa, artapen-egoera, kopien zenbakiak, etab.
 - Irudiak indexatu, bakoitza bere testu-fitxan.
 - Argazki-albumetan instalatu dira euskarri egokietan, tamainaren, artapen-egoeraren, eta abarren arabera, ph neutroko tamaina desberdinetako gutunazaletan ipinita, bakoitza dagokion irudiari egokitua. Aldi berean, inbentario paralelo bat egin da, eta hor errepikatutako irudiak deskribatzen dira, behin erregistratutakoan, bakoitzeko hiru ale.
- Eranskailuen bilduma: bilduma honen inbentarioa egiten ari gara, idazpen berriekin eta, aldi berean, material errepikatuaren erregistro paraleloa ere gertatzen.
- Horma-irudien bilduma: bilduma honen inbentarioa egiten ari gara, idazpen berriekin, eta irudiak atzematen ere ari gara argazki digitalen bitartez.
- Sakelako egutegien bilduma: 450etik gora erregistro. Material errepikatuaren erregistro paralelo bat gertatzen ari gara, eta bakoitza bereizmen handiz digitalizatzen.
- Txartelen bilduma: 50 idazpen baino gehiago deskribatu ditugu, eta digitalizatu.
- .

Lan horiek egin beharrak, deskribatu berri ditugun inbentarioen gaineko 140 kontsulta baino gehiago egitea ekarri du.

Atal honetan, esan behar da, gure eranskailu, egutegi, horma-irudi eta txartel bildumak ugaritzen joan direla, bildumazaleek egindako ekarpenen bitartez, haiek gure dohaintza-emaileen zerrenda ugaria are luzeago eta joriagoa egin dutelarik.

Museoak 2010ean dohaintza kopuru handia jaso du; orain haien inbentarioa egiten eta, gordailuetan, dagozkien euskarrietan, instalatzen ari gara. Material garrantzitsu asko berreskuratzea lortu dugu, gure ehungintza-funtsa, dekorazio-artekoa, arte grafikoetako argazki-artxiboa etab., jorituz. Edo Zumaiako Jon Gutiérrez Irigoienek bildumarena bezalako dohaintza; edo Martinez de Lecea familiak, garai bateko horma-irudi kopuru eder bat eman zuelarik, edo Carmen Bilbao Ariñok, Iparraldeko postal-bilduma bat, eta beste batzuenak; ekarpen garrantzitsu izan dira denak gure defentsa-funtsetarako, arte grafikoenerako eta argazki-artxiborako.

Beste alde batetik, erakusketa ibiltariei dagokienez, nabarmendu behar da gai askotako hainbat erakusketatan parte hartu dugula eta mugitu ditugun piezak ehunetik gora izan direla

Manu Egileor Aretoan ikusgai ipini diren aldi baterako erakusketei dagokienez, 2010ean ere Museoa orain dela urte hiru hasi genuen politikari jarraitzen zaio, alegia: urte osoan erakusketa bat edukitzea aukeratu genuen, ikastetxeetako curriculum-proiektuei estaldura hobea eman ahal izateko, erakusketa-eremuaren barruan ematen diren tailer didaktikoen laguntzarekin.

“Manu Egileor” aldi baterako erakusketen aretoan “10 talaia 1936ko gerrarako” izenburudun erakusketa ikusi ahal izan da, Bilboko Euskal Museoarekin elkarlanean, erakunde horrek materiala utzi digularik erakusgai ipintzeko.

Ikastetxeek harrera ona egin diote gure proposamen berriari, ingurune horren barruan egindako ahozko tailer didaktikoei hizlariak kontatzen dituzten gertaeren garaitik hurbilago sentiarazten baitituzte gazteak.

Erakusketa horrek jakin-min handia sortu du gure bisitari askorengan, eta, ukitzen duen gaiagatik, beste erakusketa batzuen bitartez iritsi ez garen ikastetxe zenbait interesa daitezen lortu dugu.

Ekitaldi honetan, 2010ean, finkatu egin dira Museora egiten diren bisitak. Horrenbestez, ikasturte osoan bisitari nagusiak zenbait ikastetxetako ikasleak izan dira, eta sarritan horren bultzatzaile izan direla esan behar dugu: ematen ari garen ahozko historia-tailerrak, eta Museoak “Bizkaitik Bizkaira” programan parte hartzea.

Gure eskaintza didaktikoaren oinarriak dira:

1. Tailer-bisitak, Lehen Hezkuntzara (7-12 urte) zuzenduak, eta maila bitan banatuta: lehenengoa, “Sortu zeure bandera” izenburukoa, 7-9 urteko ikasleentzat, eta bigarrena, “Historia osatzen” izenburukoa, 10-12 urteko ikasleentzat.

Lehenengoan informazio-karpetak banatzen dira, eta haietan zenbait banderari buruzko informazioa eta ikasleek bakoitzak bere bandera egin ahal izateko materiala egoten da.

Bigarrenean, behin erakusketa iraunkorraren bisita amaitutakoan eta bertan erakusgai dauden eta gure historiaren zenbait gertaera azaltzen duten objektu batzuen gaineko informazioa jaso ondoren, eskola-umeek objektu horiek osatu beharko dituzte bertan emango zaizkien puzzleetan.

Udako hileetan pertsona eta talde askoren bisitak izan ditugu; horietako gehienak jatorri-herrialdeak Katalunia, Mallorca, Iparralde, Galizia, Irlanda, Amerika, Argentina, Ingalaterra, etab. izan dira.

Historia-tailerrek 12 eta 18 urte bitarteko gazteen eta, Euskadiren historiako hainbat gertaera, zuzenean bizi zituzten pertsonen arteko topaketak bideratzen laguntzen dute.

Horren guztiaren osagarritzat, bideo-emanaldiak ere izango dira eta neska-mutilek protagonistei galderak egin ahalko dizkiete hizpide den sasoiaren eta haiek bertan bete zuten eginkizunaz.

Euskal Abertzaletasunaren Museotik igarotzen diren gonbidatuak hainbat gaiez mintzatzen dira, hots: Gerra Zibila, espetxean izandako bizipenak, gudarien batailloiaren eginkizuna, trantsizioa, euskal kultur produkzioa, diaspora, ikurrinaren legeztatzea, etab.

Urtea osoan 6.000 inguru bisita jaso ditugu.

Urtarrila, martxoa, maiatza eta azaroa izan ziren talderik gehien etorri ziren hileak. Baita kontuan izan behar dugu ere, Euskadiko bazter guztietan gure aldi baterako erakusketak ikusten izan diren pertsona horiek guztiak zenbatu gabe daudela, eta ez direla sartu Museoaren bisitari kopuru osoaren barruan.

8.2.- KONTSULTAK, LANKIDETZAK ETA MAILEGUAK

Ekitaldi honetan 190 kontsultatik gora jaso ditugu, eta 400etik gora irudi zerbitzatu dira, hala partikularrei eta ikertzaileei nola zenbait hedabideri eta instituziori.

LANKIDETZAK ETA MAILEGUAK

2010ean bestek ekoiztutako sei erakusketa baino gehiagotan parte hartu dugu, eta horretarako 177 pieza mugitu ditugu.

8.3.- TAILER DIDAKTIKOAK ETA JARDUERAK

- **Martxoak 25:**

Historia-tailerrak. Laguntzaileak: José Follá Gorila, amarekin eta anai-arrebekin batera erbesteratua, eta Iñaki Egaña, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoaren berreskurapenaz hitz egiteko. Partehartzailea, Durangoko Bigarren Hezkuntzako “Fray Juan de Zumarraga” Institutua.



- **Martxoak 26:**

Historia-tailerrak. Laguntzaileak: José Moreno, “San Andrés” batailoiko gudaria eta Iñaki Egaña, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoaren berreskurapenaz hitz egiteko. Partehartzailea, Durangoko Bigarren Hezkuntzako “Fray Juan de Zumarraga” Institutua.



- **EKAINAREN 17tik 20ra**

Beste lau museorekin batera “VI. NAZIOARTEKO ELKARRALDIA. GAURKOTASUNA ETA MUSEOGRAFIA. ICOM 2010” antolatu, planifikatu eta garatu genuen.

Honako museo hauek parte hartu eta aurkeztu ziren:

1. **Alemaniko Museo Historikoa (*Deutsches Historisches Museum*)
Berlin**
2. **Bilboko Arte Eder Museoa**
3. ***Museum of Zealand Te Papa Tongarewa***
4. **Giza Bilakaeraren Museoa (*Museo de la Evolución Humana*)**
5. **“Boinas La Encartada” Museoa**
6. **Portimao Museoa**
7. **Medina Azaharako Museoa**
8. **Karlismoaren Museoa**
9. **Almadén-eko Meatzari Parkea (*Parque Minero de Almadén*)**
10. **Guggenheim Urdaibai Museoa**
15. **Mexiko Berriko Historia Museoa (*New Mexico History Museum*)**
16. **Tomislav Solaren hitzaldia, *The Best in Heritage*ko zuzendaria,**

Eta honako museo hauek bisitatu ziren: Bilboko Arkeologi Museoa; Euskal Herria Museoa; Gernikako Bakearen Museoa, eta Santimamiñeko kobak,

1.4.- ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

- **Erakusketa “Nunca más. Imágenes de guerra”**

Apirilaren 23tik maiatzaren 23ra, Gernikako Batzokiaren erakustaretoan.



2.- PARTIKULARREK EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOARI EGINDAKO DOHAINTZAK. SABINO ARANA FUNDAZIOA

Urte honetan, hogeita hamarretik gora pertsona nahiz erakunderen dohaintzak jaso ditugu; ekarpenak guztira, 1.799 pieza izan dira.

9.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA



Urtarrilaren 31n, igandearekin, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, Manuel Elkin Patarroyo malariaren aurkako txertoa aurkitu zuen zientzialariak, Jokin Aperribay Real Sociadadeko presidentek, Inma Shara orkestra-zuzendariak, bai halaber, Uria sendiko kide batzuekin batera eta enpresa osoa ordezkatzuz, Altuna y Uria Construccioneseko gerente Fernando Lucas-ek eta, “Gure arrantzaleak” kolektiboa ordezkatzuz, Bizkaiko Arrantzaleen Kofradien Federazioko presidente Iñaki Zabaletak jaso zuten 2009ko Sabino Arana Saria, Arriaga antzokian ospatutako ekitaldi batean.

Ibarretxek adierazi zuen, saria ez zela berarentzat, beraren Gobernuarentzat baino, “mundu honetan ezinezkoa baita gauzak bakarrik egitea”, ezpada ze, “gakoa lantalde-lana da”. Era berean, bere burua definitzean esan zuen, Lehendakari gisa zuzentzen zuen Jaurlaritza osoaren zereginaren “ordezkaria” besterik ez zela.

Ildo horretan, zehaztu zuen, azken buruan berak “bere lana” besterik ez zuela egin, nahiz eta eskertu egiten duen sari honek irudikatzen duen “txera”-erakusgarria.

Bestalde, Patarroyo zientzialariak, zeinek orain dela 23 urte aurkitu zuen malariaren aurkako txertoa eta doan laga, gaitz horren kontra borrokatzeko, Osasunaren Mundu Erakundea (OME) kritikatu zuen, zeren “gaixotasuna, zoritxarrez, ikaragarri politizatu baitzen” A gripearen aurkako txertoak zirela-eta.



Beraren iritziz, “interes haundiak” zeuden, eta horiek ez zuten utziko erakundeak askatasunez jardun zezan; “ulertzeko modukoa”, bestalde, kasu horretan mugitzen den dirutzaren handiagatik.

Errealeko presidente Jokin Aperribay nabarmendu zuen, bera buru duen klubak diziplina askotan diharduela, futbolaz harantzago, eta domina olinpikoak irabazitako kirolariak ere badituela.

Orobat, adierazi zuen, Real Sociadadek irudikatzen duen futbola “Gipuzkoa gehien batzen duena eta lurraldea kanpoan hobekien ordezkatzeko duena” dela. Baita gogorarazi zuen ere, klubak azken aldion “une larriak” bizi izan dituela, orain jadanik gaingituak Gipuzkoako erakundeek “sostengu baldintzagabearekin”.

Inma Shara orkestra-zuzendariak bere arabar eta euskal herritar sentipena errebindikatu zuen, zehaztuaz batera gaur bere benetako izenarekin dei diezaioten nahi zuela, hots: Inmaculada Saratxaga. Gainera, azaldu zuen, “artista ororen motorra maitatua sentitzea delarik”, Sabino Arana Fundazioarekin “biziki esker oneko” sentitzen zela sariagatik.

Zabaletak, bere aldetik, Bizkaiko kofradien ordezkari gisa, adierazi zuen, “familia arrantzalea osatzen dabenak ez dirala bakarrik arrantzaleak eurak”, baita lehorrean lan

egiten daben behargin guztiak eta familiak bere, “ze horreen guztien laguntasunik barik ezinezkoa izango litzateke itsasora urtetea”.

Marinelen izenean, Iker Galbarriaturen, pirata somaliarrek bahitutako 'Alakrana' itsasontziko kapitainaren, arrebak ere hitz egin zuen. Argi Galbarriatuk euskal gizarte guztiari eskertu zion jazoera hartan arrantzaleei emandako sostengua, eta bereziki, Juan Jose Ziarretari, zein trafiko-istripu batean hil baitzen, bahituei sostengua erakusteko elkarretaratze batean parte hartu ondoren.

Azkenik, Fernando Lucasek, Altuna y Uria Construcciones enpresako, ETAk berriki eraildako Inaxio Uriak zuzentzen zuen enpresako, gerenteak hitz egin zuen.

Lucasek krisi-garai hauetan beraren enpresak garatzen duen zeregina defenditu zuen. Bertoko “familia-konpainia honek bere hartan eusten dio ilusioari”, eta, besteak beste, “euskal Y trenbidea”ren eraikuntzan ere parte hartzen ari da.

Arriaga antzokiko ekitaldia Udane Goikoetxea eta Aitzol Zubizarreta kazetariak arteztu zuten, eta ikuskizun-emanaldiak ere gozatu ziren, Oreka TXek, Amaren Alabak taldeak eta Kukai dantza-taldeak eskainita.

10.-DURANGOKO AZOKA

Durangoko Azoka

Abenduaren 4tik 8ra Fundazioa beste behin egon zen, “stand” birekin, Durangon urtero egiten den euskal liburu eta disko azokan, non Fundazioaren azken argitalpenak eta berritasunak erakutsi eta salgai ipini genituen.

Gainera, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren 45. aldi hau agertoki ezin hobea izan zen, Sabino Arana Fundazioak kaleratutako azken argitalpenetako bat aurkezteko; zeregin hori Gontzal Mendibil konpositore eta musikariaren eta Iñaki Goigana historialariaren ardura izan zen. Lan hori da, Agirre lehendakariaren zin egitearen eta lehenengo Eusko Jaurlaritzaren eraketaren antzezpena jasotzen duten liburua eta DVDa, hori dena Gernikan grabatu zen, urriaren 7an. Antzezpena, Agirre lehendakariaren heriotzaren 50. urteurrena ospatzea helburu, AL50 Batzordea 2010 honetan garatzen aritu den ekitaldietako bat izan zen.

Baina, gainera, Sabino Arana Fundazioak beste hiru argitalpen berri ere eraman zituen euskal kulturaren gertakari garrantzitsu hartara, azken hileotan garatu duen lanaren ataletako baten emaitza eurak; zehazki, bat Euskadiko lehenengo lehendakariaren, Jose Antonio Agirre Lekuberen, egunkariaren edizio facsimilea da; bigarrena, Jean-Claude Larronde historialariaren azken lana, “Luis Arana Goiri (1862-1951). Historia del Nacionalismo Vasco” liburua, eta hirugarrena, “Felipe Egiguren. Benetako abertzalea. Un abertzale íntegro” liburua.

Esperientzia urte honetan ere oso ona izan da beste behin.

11.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

Sabino Arana Fundazioak bere izaera zabalagatik zenbait elkarlan gauzatu ahal izan ditu beste erakunde eta instituzio batzuen ordezkariekin, berez egin ohi dituen jarduerakoez gainerakoak, alegia.

Halakoak 2010ean hurrengo hauek izan dira:



Orain dela urte batzuk hasi zenetik dagoeneko ohiko bihurtu delarik eta Euskadiko Galiziako Etxeen Elkartearekin elkarlanean, martxoaren 14an gorazarrea egin zitzaion Castelaori, Sabino Arana Fundazioak haren oroimenez eraikitako monumentuan.

Beste alde batetik, Sabino Arana Fundazioak ere parte hartu zuen, EAEko agintariekin, alemaniar udal zenbaiten ordezkariekin, beste erakunde batzuekin

eta Gerra Zibileko biktimen senitartekoeekin eta bizirik atera zirenekin batera, Gernikaren bonbardaketaren biktima guztien oroimenez apirilaren 26an egin zen lore-eskaintzan.

Bestalde, 1512an gertatutako Nafarroaren konkistaren V. mendeurrena oroitzeko jarduerak jardueren barnean, irailaren 18 eta 19an Euskal Herriko Historialarien I. Biltzarra egin zen Bianan, Nabarralde elkarteak antolaturik eta, bertzeak bertze, Sabino Arana Fundazioaren laguntzarekin.

12.- HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Dauden estatistiken arabera, 2010 urte osoan gure web orriak 17.500etik gora bisita jaso ditu, 67 herrialdetako internautenak. Ia 76.000 orri (edo bider) kontsultatu dira gure atarian bilduta ditugun informazioak, eta bilaketak eta kontsultak egitean erabilitako munduko hizkuntzen artean sarrien baliatutakoak honako hauek izan dira: gaztelania, euskara, ingelesa eta frantsesa.

Web orriaren egiturari esker, eta haren programaketak eskaintzen dizkigun ahalbideetan oinarrituta, Mezu@ bide informatikoaren -buletin elektronikoa- bitartez, aldian-aldian 6.000tik gora kontakturi jakin eragiten zaizkio Sabino Arana Fundazioaren jarduerak.

Gure edukiek eta zerbitzuek Interneten gero eta presentzia handiagoa izatea, adibidez, Abertzaletasunaren Agiritegiak web orrian ostatatutako formularioen bitartez jasotako kontsulta eta eskari kopuruan islatu da, orain artean gehien erabilitako bitartekoen (e-posta eta telefonoa) buru jarri delarik.

13.- BURUTUTAKO JARDUEREN EMAITZEN BALIOESPENA

2010ean garatutako jardueren artean nabarmentzekoa da “AL 50 Egitarau berezia”ren atalari eskaini diogun arreta berezia. Jarduera-egitarau oparo bat izan da AL 50 Batzordeak antolatu duena. Batzorde hori Jose Antonio Agirre Lekube lehenengo lehendakariaren heriotzaren 50. urtemuga oroitzeko sortu zen. Sabino Arana Fundazioak koordinatutako batzorde horretan instituzio guztiak ez ezik, haren senide propioak eta Agirre lehendakariaren jarduera politikoarekin zerikusia izan zuten beste kide batzuenak egon dira ordezkatura.

Gaur egungo krisi-egoera dela-eta dauden “Itxarobide ekonomikoak”, edo era berean interes handiz entzunak izan diren beste hitzaldi eta mintegi batzuk izan dira, besteak beste: “Immigrazioa eta Abertzaletasuna”, “Bake bila baikor. Erronka gaindigarria”, Konstituzio Epaitegiak Kataluniako Estatut-en gainean emandako epaiaz Artur Mas Kataluniako oraingo *presiden* jaunak eskainitako hitzaldia, amerikar independentzien berrehungarren urteurrenak eta Afrikaren suspertzea.

Azpimarratu behar da, bestalde, gure deialdiak irekiak izaten direnez, haietan edonork parte har dezakeela, hau da, euskal gizarte osoa dela gure jardueren onuradun. Gogoeta eta elkarrizketarako mintzagunearen hitzaldiek eta mahainguruek, batez beste, 150etik gora entzule izaten dituzte, eta mintegiei dagokienez, haietan aztertzeko hautatutako arlo bakoitzeko 30 eta 40 bitarte adituk parte hartzen dute.

Beste alde batetik, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian eta Museoa artatzen dituen funts ugari eta askotarikoak jende artean hedatzea xede, Sabino Arana Fundazioak erakusketak antolatu ohi ditu Euskadi guztian, material historikoak erakusteko, hala agiritegikoak, nola liburutegikoak, hemerotekakoak, nahiz museokoak eta beste, zeintzuk Fundazioak Artea Arratiako Meñaka eraikinean baititu gordeta.

Erakusketak, kokapen geografikoaren eta iraupenaren arabera, batez beste, 800 – 1.000 bat pertsonak ikusten dituzte, kasuren batean 5.000ra ere iritsi delarik.

Historia-tailerrek ere oso harrera ona izan dute.

Beste alde batetik, dagoeneko, HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren 35 zenbaki argitaratu dira. Hamar urteko ibilbide horretan aldizkaria, hiruhilabetekaria, elkarrizketa eta debate ideologikorako tresna bilakatzeko asmoarekin sortua eta Euskal Herrian mintzatzen diren hiru hizkuntza ofizialetan idatzia, sendotzen joan da, euskal politika-, kultura-, ekonomia- eta gizarte-esparruetan ezaguna egin delarik.

Hamar urte honetako esperientziak eta jaso ditugun iritziek eta iruzkinek orain artean izan dugun ildoari eustera adoretzen gaituzte, hots, elkarrizketa eta debate ideologikorako tresna gisa, pertsonen eta herrien askatasunerako eskubidea, gizarte- eta politika-taldeen askatasunerako eskubidea berrestera, autodeterminaziorako eskubidea herrien askatasun politikoaren adierazpide dela onetsi eta agertzeaz batera, eta, era berean, bere gain hartuz euskal gizartearen izaera anitza, izan ere, gainera, hark abertzaleaz bestelako politika eta gizarte agerpenak aintzatestea exijitzen du.

Finkatu den gure beste kultura-jarduera bat Sabino Arana Sariak da; sari horiek Fundazioak bere jarduerekin hasteaz batera, 1988an, eratu zituen. Hastapeneko nahia eta oraingo asmoa berdinak dira, hau da, gizartea zerbitzatzeko joranagatik eta gogo biziagatik nabarmendu

diren erakundeei zein norbanakoei omenaldi zintzo eta bihotz-bihotzekoa eskaintzea besterik ez.

Sabino Arana Sariak sortuz geroztik urterik urte, huts egin barik, eman izanak sendotu eta sustraitu egin du saria, zein Sabino Arana Fundazioko kideek, egindako lanagatik gailendu diren kolektiboei eta, norbanakoka, bakoitzak xede izan duen kausaren alde egindakoagatik nabarmendu diren pertsoneri eman ohi baitiete euren esker onaren erakusgarritzat.

Bide horretan, bada, Sabino Arana Fundazioak gizarte- zein politika- arloetako oso gizarte-oinarri ugari eta askotariko baten aintzatespena eta sostengua ditu,

Kultura-gertakari horretara batez beste 1.000 bat pertsona etortzen dira urtero.

Beste alde batetik, beste erakunde eta instituzio batzuekiko harremanez denaz bezainbatean, haietariko hainbaten ekitaldietan parte hartzen dugu gogara (Euskadiko *Irmandade de Centros Galegos*, beste fundazio batzuk, udalen ordezkari zenbait, ikastetxeak, etab.).

Emandako zenbaki eta datuen argitara, uste dugu, behar bezala bete ditugula aurreikusitako asmo eta helburuak.